



AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

EAEko ekonomiaren hazkunde aurreikuspena beherantz berrikusi da

Eskuragarri dagoen koitunturako informazioari esker, EAEko ekonomiaren hazkunde aurreikuspena, 2020-2021 aldirakoa, eguneratu ahal izan da. Hortik eratorri den taula makroekonomikoaren arabera, aurtengo BPGaren beherakada lehen kalkulaturakoa baino nabarmen handiagoa izango da, eta $-8,7$ an kokatuko da. Susperraldia 2021eko lehen erdian etorriko da eta urte horretan batez beste $6,7$ ko hazkundera izango du. Beraz, datorren urtean ez da 2019ko maila be-


rreskuratuko. Eskariaren bi osagai nagusiek jaitsi-era oso esanguratsuak izango dituzte aurtun. Alde batetik, azken kontsumoa $7,3$ jaitziko da, eta, bestetik, kapital eraketa gordina $9,6$ murriztuko da. Beherakada handiena bigarren hiru-hilekoan gertatuko dela aurreikusi da, eta harez geroztik urte arteko jaitsierak leunduko direla. Sektorekako azterketan, zerbitzuak dira gehien kaltetutako jarduerak.

BARNE PRODUKTU GORDINA

Urte arteko aldakuntza tasa


BARNE PRODUKTU GORDINA 2020

$-8,7$




AZKEN KONTSUMOA

Urte arteko aldakuntza tasa




KAPITAL ERAKETA GORDINA

Urte arteko aldakuntza tasa




INDUSTRIAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa



ERAIKUNTZAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa




Enpleguaren gaineko eragina oso handia izango da eta %7,0ko jaitsiera aurreikusten da lanaldi osoko lanpostu baliokideen kopuruan, urteko batez bestekoan. Tasa horrek esan nahi du 2019an baino 68.100 lanpostu gutxiago egongo direla. Zenbatespen hori ez da lanpostua galtzen duten pertsonen buruzkoa, baizik eta lan egin gabeko orduen kopurari buruzkoa, urteko lanaldi osoetan taldekatuta. Enplegua galtzen duten pertsonen estimazioa nabarmen txikiagoa da, lanik egin ez dutenen kopuru handi batek enpresarekiko loturari eusten baitio, ABEEEn bidez.

Bestalde, langabezia tasak gora egingo du aurten, batez beste, %13,7an kokatu arte, 2019ko datua baino ia lau puntu gorago.


ZERBITZUEN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa




ENPLEGUA

Urte arteko aldakuntza tasa



LANGABEZIA TASA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.